



Sinadura elektronikoa

Egiletasuna

bermatzeko

euskarri digitala

Internet hedatzearekin atzera gelditu da eskuz idatzitako sinadura tradizionala. Firma digitalari esker, merkataritza eragiketak, transakzioak eta hitzarmenak burutu ahal ditugu Internet bidez. Eskuz idatzitako sinadurari ematen zaion erabilera berbera du, hots, eraginkortasun juridiko bera du. Egun, Administrazioarekin kudeaketak burutzeko 10.000 lagunek dute sinadura elektronikoa EAEn. Laster ordea, guztiok izango dugu sinadura elektronikoa, 2007-2008an NAN digitala ezarriko baita.

XABIER TELLETXEA

ASKOTAN EZTABAI DATU OHI DA Internetek eskaintzen dituen abantaila eta desabantailen inguruan. Erosotasuna litzateke abantaila nagusienetako bat eta segurtasun eza berriz, desabantaila nabarmenena. Bi irizpideok orekatzen dituen baliabidea jorratuko dugu erreportaje honetan: firma digitala, hain zuzen. Beroi esker, edozer kudeatu dezakegu etxetik mugitu ere egin gabe eta segurtasun osoz.

Sinadura elektronikoa ohiko sinaduraren funtzio bera du. Titularrak bakarrik ezagutzen dituen gako-hitz pribatuak era-

biliz, mezuak bidali eta jaso ditzake, baita edozein transakzio mota kudeatu ere. Hala, bai igorleak eta bai hartzaileak dokumentu elektronikoaren konfidentzialtasuna onartzeraz derrigortuta daude eta era berean, hirugarren batek aldatu edo ordezkatzeko eskubiderik ez izatera konprometitzen dira. Eztabaidarik izanez gero, legearen aurrean froga gisa erabili ahal da informazioaren osotasuna bermatzeko.

Harreman telematikoa

Informazioaren egiletasuna onartzeko sistema bezala definitu daiteke firma digitala. Mezuak kodetu eta zifratzeko mekanismoztat uler dezakegu. Komunikazio guztietan bi aldeek gakoak ezagutzea ezinbestekoa da. Bete beharreko oinarriak honakoak dira: sinatzailearen kontrolpean bakarrik sortzea, igorritako datuak hari lotzea, aldeak legezkatzea, informazioaren osotasuna errespetatzea, konfidentzialtasuna bermatzea, teknikoki eta juridikoki ez gaitzestea eta frogatzeko indarra izatea.

Legez onetsia

Sinadura elektronikoa 1999. urteaz gozotik dago araututa Europako Batasunean. Espainiako Estatuan zehazki, sinadura horren izaera juridikoa Errege Dekretu

Lege baten bidez dago araututa. Hain zuzen, erakunde espezializatuek ematen dituzte sinadura elektronikoaren ziurtatze digitaleko zerbitzuak. Erakunde horiek erregistro publikoan inskribatuta daude eta ziurtagiriak legez tasatuta daude. Hala, kalte-ordainengatik ardurak eskatzeko aukera dago.

2007-2008an NAN elektronikoa izango dugu

Jordi Sevilla Administrazio Publikoetako Ministroak Tecnimap jardunaldietan aurreratu zuenez, NAN elektronikoa 2005. urte hasieran ezarriko zen. Orain gutxi ordea, José Antonio Alonso Barne Ministroak esan duenez, NAN elektronikoaren sistema 2007ko bukaeran edo 2008ko hasieran egongo da prest. Dokumentu horrek, orain arteko balioa izateaz gain, sinadura elektronikoa izango du. Ekimen hori "Plan Conecta" izenekoaren barnean sartzen da, eta beronek 2007. urtea baino lehenago burutuko diren 43 proiektu hartzen ditu bere baitan. 84 milioi euro bideratuko dira ekimen horiek guztiak gauzatzeko. Administrazio Publikoetako Ministroaren esanetan, NAN elektronikoaren helburua izapideen %80a aurrezte da. Hala, herritarrak Administrazioari dagozkion kudeaketa

Luis Mari Guinea, Izenpe ziurtapen elektronikoko erakundeko zuzendaria «Sinadura tradizionalak baino segurtasun handiagoa eskaintzen du sinadura elektronikoa»

Transakzio horiek egunerokotasunean nola gauzatzen diren ezagutu xedez, Luis Mari Guinea Izenpeko zuzendariarekin hitz egin dugu.

Zein motatako ziurtagiriak lantzen dituzue eta nori eskaintzen dizkiozue?

Administrazioarekin kudeaketak burutuko dituen orori eskaintzen diogu sinadura elektronikoa. Hiru ziurtagiri mota landu ohi ditugu: hiritarrei zuzendutakoa, enpresei dagokiena eta funtzionarioena bestea. Administrazioaren barnean lan egiten dutenek, intranet bitartez egin ditzakete kudeaketa guztiak: nominak kontsultatu, agiriak eta baimenak eskatu... Administratibotik at daudenek, berriz, hiritar eta enpresek alegia, diru-laguntzak, errenta aitortpenak, egintza fiskalak... kudea ditzakete.

Zein pauso jarraitu behar ditu sinadura elektronikoa izan nahi duenak?

Hiritarra bazara, erregistro bulegoetara jo behar duzu, lurralde bakoitzean bi daude. Behar duzun gauza bakarra Nortasun Agiri Nazionala da. Eskatera txikia denez, telefonoz eska dezakezu hitzordua. Ordea, erakunde bazara, ahal batzuk aurkeztu behar dituzu Izenpek erakunde bate-



ko ordezkari edo kide izenda zaitzan. Sinadura elektronikoa plastikozko txartel batean ematen da. Horrekin batera, irakurgailu bat eta softwarea ematen zaio erabiltzaileari, sinadura elektronikoa bere ordenagailuan erabil dezan.

Zein da sinadura elektronikoa eskatzen duenaren profila orokorra?

Sinadura elektronikoa batik bat gestoriek eta 25 langiletik gorako enpresek eskatu ohi dute.

Zenbat jende duzue erregistratuta egun?

Urtebete daramagu sinadura elektronikoa eskaintzen eta jada hamar mila erabiltzailetik gora ditugu.

Zein kostu du ziurtagiri digitalak?

Orain arte, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek bere gain hartu dituzte gastu guztiak. Egun, ziurtagiri baten kostu gordina 30 eta 40 euro artean dago, baina ez da ezer kobratzen. Baliteke ordea aurrerago kobratzen hastea.

Zein balio juridiko du?

2003. urtean Estatuko Buletin Ofizialean argitaratu-

tutako legearen arabera, hiru sinadura elektronikoko mota daude: bata, Interneten identifikatzeko erabiltzen dena –erabiltzaile izena eta pasahitza–. Sinadura elektronikoa aurreratu da bestea, ziurtagiriak erabiltzen dituenak. Eta azkenik, sinadura elektronikoa aintzatsi edo ezaguna, paperean idatzitako sinaduraren balio juridiko bera duena alegia. Guk azkeneko hori bakarrik hornitzen dugu. Sinadura tradizionalak baino segurtasun handiagoa eskaintzen du sinadura elektronikoa. Firma tradizionalaren faltsutze kasu batean esaterako, epaiketean kaligrafo baten beharra genuke. Sinadura elektronikoa kasuan berriz, erabiltzaileak bakarrik daki pasahitza. Gainera, galduz gero, geuri telefonoz deitzea nahikoa du erabiltzaileak.

guztiak burutu ahal izango ditu etxetik mugitu gabe.

Euskal Herrian ere posible da egun herritarren eta Administrazioaren arteko harreman telematikoa, Izenpe ziurtapen elektronikoko erakundearekin. Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek sortutako erakunde horrek Internet bidez eragiketarik inguru seguruan eta erabateko bermearekin kudeatzea ahalbidetzen du.

Administrazio eta herritarren arteko harremana 24 orduetan aktibo

Izenpe baltzu anonimoa da. Egiaztapen

edo identifikazio erakunde honek noski, egiazkotasuna, konfidentzialtasuna, osotasuna eta uko ez egitea bermatzen ditu. Helburu nagusia euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeen arloan, komunikazioetan segurtasun zerbitzuak, teknikoak eta administratiboak ematea da, teknika eta baliabide elektronikoa, informatikoa eta telematikoa bidez. Pertsonentzat edo erakunde publikoetarako zein pribatueterako behar diren erabiltzailearen tituluak, ziurtagiriak eta txartel-euskarriak hornitzen ditu, baita zerbitzariko titulu edo ziurtagiriak ere. ■